

## MARICHU ZERURA.

(MARÍA ASUNZION AMPUERO-KOAREN ERIOTZAN BERE GURASOAI)

Egarik odei zuri  
Zuriyen ganetan,  
Uso polit eder-bi  
Ebiltzen olgetan,  
Eguben arraztiko  
Bosteta erdiyetan:  
¿Zer dira orren eder?  
Nagola itaunetan  
Goitik entzun-nituzan  
Berba oneek batetan.

Durango-n sortutako  
Lora chit argia,  
Marichu dozu bata  
Aingeru garbia;  
Bere onduan pozik  
Dakusun bestia,  
Ak aingeru zeruko  
Eukan yaolia:  
Zeruben erdiraño  
Da euren egia.

Elduten diriala  
 Zeru goiyenera,  
 Milla aingeru taldak  
 Eiñ deutze arrera,  
 Eruanik Donzella  
 Amaren aurrera,  
 Marichuri buruan  
 Aroa ipintera;  
 Aingeruchu ederrenen  
 Artian jartera.



## AIÑGERU BAT GEIYAGO.

---

(MARIA PIEDAD ARTIÑANO-KOAREN ERIOTZAN BERE GURASOAI)

---

Artiñano-ren alabachua,  
 Piedad, zeru-goiyera  
 ¿Zelan juan-zara aita ta amari  
 Emonik aiñbat minbera?  
 Azertau-dozu, Piedad maitia,  
 Erruezagaz-batera,  
 Garbitasun ta birtute-danen  
 Koroi eder bat artzera  
 Igorik zeure arima ona  
 Aiñgeru ederren artera.

JOSÉ IGNACIO ARANA-KOAK.

---